

ZERUTIK HEGARAN

Bazen behin, neskatila bat Uxue izenekoa. Bera, Euskal Herriko herri txiki batekoa zen baina gurasoen lanarengatik Madrilera joan behar izan zuten bizitzera eta Uxue ez zegoen oso pozik horregatik. Uxue azkarra eta jatorra zen, beti zituen ideiak buruan eta nahiko bakartia zen, bazituen lagunak baina nahiago zuen etxean bakarrik gelditzea. Neskatila, txikia zen eta 8 urte zituen, begiak eta ilea beltzak zituen baina azala zuri-zuria zuen.

Egun batean, Uxue bere logelan zegoen, oraindik etxe aldaketarengatik, kaxaz beteta zegoen Madrileko etxean, ez bait zituen gauza danak atera, bere egunerokoa hartu nahi zuen baina ez zekien non zegoen. Eskola berrian hasita zegoen, ez zitzaion gustatu, lehengo etxera bueltatu nahi zuen, hemen, euskararik ez, lagunik ez, dena desberdina zen norbaiti kontatu behar zizkion bere arazoak: egunerokoari. Bere logelako atea zabaltzera joan zen eta esan zuen, “Txori bat izatea gustatuko litzaidake, zerutik hegaran joateko” eta bat-batean zeruan agertu zen.

Hasieran, ez zekien non zegoen dena lainotuta zegoen eta, lainoak pixkat urrundu orduko hiru dragoi erraldoi ikusi zituen berari begira, bi aldiz pentsatu gabe Uxuek oihu bat bota zuen eta korrika hasi zen kontrako norantzan. Dragoiak bere atzetik zihoazen bitartean konturatu zen laino baten gainean zegoela eta beldurraren ondorioz jausi egin zen. Atzera begiratu zuen eta hiru dragoiak bere pare-parean zeuden, urduri zegoen bitartean plan bat bururatu zitzaion. Dragoi baten bizkarrean jarri zen, beste biak Uxue botatzen saiatzen ziren baina dragoi horri min egiten zioten eta jausi egin zen dragoia. Uxuek beste dragoiarekin gauza bera egin zuen eta azkenik hirugarrena bertan utzi eta korrika ihes egin zuen. Dragoia urrun ikusi zuenean Uxuek, gelditu egin zen eta bere ingurura begiratu zuen. Zeruan zegoen benetan, lainoen gainean, zerua larrosa oso polita zen. Urrunera begiratzen zegoenean amona bat ikusi zuen, bere tamainakoa, begiak eta azala zimurtuta zituen eta irribarre bat zuen ahoan. Amonak bat-batean esan zion, “Dena aurrera, lainoarekin belea jarraitu eta etxean egongo zara, ez esan ezer ez inori, bestela, bidea aldatuko da”. Uxue oso nahastuta zegoen ez zekien nor zen amona hori, zergatik esan zion hori, ezta hitz egin edo ez, baina bide bat esan zion eta ez zuen ezer egiteko, baina zerbait galdetzen bazuen agian

bidea aldatuko zen eta zailagoa izango zen etxera itzultzea. Uxuek baietz egin zion buruarekin eta ibilaldia hasi zen bere inguruari begira eta pentsatzen.

Bidea hasi zenean, gogotsu eta pozik zegoen, baina 40 minutu pasatzerakoan nekatzen hasita zegoen, amaiera gabeko bidea ematen bait zuen. Noizbehinka txoriak ikusten ziren baina oso gutxi, lokarriak lotzeko makurtu zen, atzetik beroa sentitu zuen eta atzera begiratu zuen. Deabrua zen! Gorria, erraldoia eta beldurgarria. Uxue hartu zuen lepotik eta bere altuerara eraman zuen. Jarraian esan zion deabruak:

- Hara! Zer gauza ziztrin da hau, txiki-txikia. Gizakia izango ote da? Hain gazte etorri da? Berdin-berdin ez dago gonbidatuta, bere mundura bueltatuko dut.

Uxuek erantzun egin nahi zuen baina Deabruak ez zion entzuten. Deabrua laino ertzera hurbildu eta Uxue bota zuen, Uxue hil egingo zen!

Neskatilak esperantza galduta zuen momentuan, laino txiki bat ikusi zuen bere parean eta lainoaren gainera jausten saiatu zen. Ez zuen lortu baina zorionez laino ertz batera heldu zen esku batekin eta gero gora igo zen, lainora. Arnasten zegoen bitartean bele bat ikusi zuen, hor ulertu zuen dena, laino horrekin belea jarraitu behar zuen amonak esandako bidea jarraitzeko. Momentu hartan irribarrea itzuli zitzaion eta hegaran hasi zen lainoaren gainean eta belearen atzetik. Oso azkar zihoazen eta munduko gauza dibertigarriena eta politena iruditu zitzaion Uxueri. Orduantxe bertan, bere gelan agertu zen, zutik eta eskua atea zabaltzeko keinua egiten, azken bidai hau motzagoa izan zen ibilaldia baino, hegaran joan zelako agian. Ordua begiratu zuen, arratsaldeko seirak eta hiru minutu ziren, bidaia baino lehenago atea zabaltzera joan zen ordua. Amets bat besterik ez zen izan, pena eman zion.

Dena gezurra izan zen, baina etxean zegoen, Madrilekoan, eta salbu. Ez zuen esan behar etxera bueltatu nahi zuela, egia zen, baina Madrilek ere gauza onak zituen, Uxuek alde onak begiratu behar zituen. Gainera gurasoekin zegoen, hori bai zela garrantzitsua, Uxuek ikasi zuen garrantzitsua dela aldaketei aurre egiten ikastea eta ez dela atzera begiratu behar hainbeste. Azkenean, Uxue pozik zegoen Madrilen eta ametsarekin nahiz eta ez egon Euskal Herrian, ondo egongo zen.

Leyla Manobal